

Aintzinako zubereraren aztarna batzu

TXOMIN PEILLEN *

Azterketa honekin norabide batzu erakutsi nahi nituzke, baina euskalki batean mugatuz. Argi izango da, ordea, zuberari buruz errango ditudanak, batzutan euskara osoan ematen direla; gehienetan ere inguruko beste euskalki eta azpieuskalkietan agertuko dira ezaugarri berdinak, ezen Zuberoako euskalkia Erronkariera, saraitzuera, aetzera eta ekialdeko behe-nafarrera delakoekin batean *Ekialdeko euskara* baita.

Ikerbideak. Bilduko ditudan lekukotasunak idatzizkoak dira gehienbat, diakroniakoak, baina aho-idatzizkoak oraingo batzu ere. Idazkien artean, orain ezagutzen ditugu XIV-XV.mendeko lege paperak, administrazio idazkiak erabiliko ditut, leku ta jende izenen itxurak ikertzeko; geroago ta VI.mendetik goiti, euskarazko hiztegi ta testuak ere bilduko, jakile bezala; nola nahi ere XVIII.menderaino ezingo dugu bereizi, herrikoi/ikasi hizkuntzarik.

Azterbideak. Hipotesi batzuk lagunduko gaituzte. Lehenik leku izenetan eta hitzelkartuetan fosilisatu erro ta hitzak aurki genetzazkeala, bigarrenik zuberera bazter-euskalki bat izango Bartoli-ren *Area laterali* delakoan arauera hiztegian aditzean eta fonetikan zaharkeriak topatuko ditugula, hirugarrenik auzo euskalki ta urruneko euskalkiekin dituen harremanak ikusiko ditugu, hiztegi arruntean, baita herri izenetan ere; laugarrenik auzo erromantzeen eraginaz jasan dituen aldaketak ikusiko diugu, azkenik barren-bilakaera bat ere ezagut lezakeala euskalki honek.

1. KONDAIRAREN GAINDI. ETA IDAZKI ZAHARRETATIK ZEHAR AURKI DITEZKEN ALDAKETAK

1.a. Toponimiaren jakilegoak

1.a.1. *Mendietan*

Zuberoako lekuizenen artean, oraingo euskalkiarekin ezin uler ditezken hitzak topatzen ditugu, Bizkaia ta Gipuzkoan erabili ohi direnek argitzen dituztenak. Santa Grazin eta gure etxetik hurbil bi izen nabarmentzen dira: *Atxárte* ta *Axkorriága* eta Larrainen, *Axkarái*.

* Euskaltzaina. Université de Pau et des Pays de L'Adour.

Gure egunetako euskalkian «atx» zer den ez dakite zuberotarrek; hitz hurbilena «ha(r)itx» lizateke, baina lekuen ikusteak berealaxe bazterrazten digu hipotesi hau eta darakusgu, mendi horietan goratasun hortan ezin dela «haritz»-ik sortu, ez bakarrik arkaitz asko dagolako baina izai ta pago baizik ez baita horietan.

Atxárte, Santa Grazi zaharretik San Martin harrira ta Izabara doan bidean, elizatik bi kilometro eginda, zubi bat igarota, ordeka txar bat dago izaia ta pagoekin eta alde guztietatik hirur barrankoen arkaitz murailaz inguratua bai, benetan bere izena merezi du, bai zuberuera zaharrean «atx» arkaitza zen nahiz gutienik XVIII.gizaldiaz geroztik «borotxe» «borotxu» esaten zaion arkaitzari. Bizkaiako beste Atxarte-an bezala hasi ziren harri ateratzen zuberotar Atxartetik, baina bideberriaren gal kaltetan izango zela-koan utzi. (980 m.g.)

Axkorriága, arkaitz biluts (gorri) batzu dira Lakhurdako mendian eta Lephailako lepoaren artean; gorritasuna ez da kolorearena, baina gainean landarerik ezean. (1200 m.gora)

Axkarái, mendi bat da oihanez estalia, haritxak badira beheko aldean baina pagoak gehienik eta arkaitzak naski hala nola *Akherrüneko borotxe* deritzaiona. (700 m.gora)

Azkañe (1290 m.gora) hor ez dago zuhaitzik, gainera tautologiaz leku hortan badaude *Azkañeko borótxü zola* eta *Azkañe borótxü gaña*; beraz hemen «Atz» aldaera daukagu.

Lekuizen txipiagoetan, ikuspegian hain nabarmentzen ez direnetan gaurko hitz arrunta «borotxu» ager liteke batzutan pleonasmu gisa, Arbailletan Iteko oihanean «Harbotxü»; batzutan «*borotxü* soilik agertzen da Ligiko Suselgü oihanean *Borótxü xórrox pía* eta *harri* edo *har*- gehienetan, oihan berean *Harbeltzeta*; Larraineko Holzarte aldean *Harxílo bürüa*, Utürzeheta aldean *Harrundúa*, San Jüsefe aldean, *Harritxipía*, *Harrigorripe* Gerendioi aldean *Harbeltzéta*. *Arphíde* Santa Grazin.

Beraz hitz zaharrena *Atx* genuke, ugariena *Harri*, berriena «*borotxü*; *botxü*, *borotxe*». Azken hau Ekialdeko behe-nafarreraz aragonerazko «puig» ekin zerikusi duenik.

1.a.2. Ibarretan

Ibia ez da zuberotarrez hitz ezaguna, baina lekuizenetan Zuberoan ugari dira *übia*, *ibia* bukatzen direnak, ezen mendira joaitean artaldeenzat, betaldeenzat ibiak pasaleku garrantzitsuak ziren: halaxe Pista ta Ardaneke saroietara ta txaboletara zoatzin artzaiñek, hiru ezagutzen zituzten, Olhadoko barrankoan *Olhadübi*, goraxeago Hartxilodian, *Amübia Amübi* eta azkenik Ardanera joaitean *Ardanübia*.

Aran ez da gehiago izen arrunt bezala baliatzen, nahiz gure Larrañe Bentaberriko izebak zekian *Arantxóla* (Aran zola, edo Ibar hondoa) zela. Hitzak bi forma ditu, «*Arhane*» herri baten izena da, eta Erroimendi gibeleko artzain saroi baten izena da *Arhanolátze* eta «Aran», jende izenetan

Aranbélitz (fr. Les Arambeaux) Sorhueta herriko hauzotegia da (Nafarroa behekoak aurrean «h» dakar). Agian Biarnoko *Aramitze* etorki berdinekoa ta Zuberoako lehen auzo-herria da.

Etxe izenetan, *Aranbúru* Altzurruku, Zalgizen aurkitzen ditugu eta *Arhánpe* Atarratzen; bebarbada *Ara-* eman du Aran-ek Arabehera (Larraine) *Arazábal* (Urdinarbe) *Arabárko* (Ligi).

Lats hitz hori ez da gehiago erreka txipi moduan ulertzen, nahiz etxe, jende ta lekuizenetan ugari agertzen den, batzutan pleonastiko ote: *Latserréka*, baina Etxelün Larrainén, erreka guztiak biltzen diren leku bati, Ugarre hauzotegian *Ugarlatséta* deritzaio. *Latsa-k*, ordea, eratorpenak eman ditu «harria egiten» zenaz gain erreka txikietan zubereraz eta auzo euskalkietan ere *latsatzea*, arropa txurien garbitzea da, *latsagia* deritzaion lekuan.

Uháitz, gaur izen bereziaz da, eta jendeak ez du ikusten nola izan den lehenik izen arrunta *Ur+* *gaitz*: *uhaitz*. Izen horrek, lekuizen generikoak «basa-ur», torrente esangura zuen, beste *Uhaitz* izeneko, mendi-urik bada Baigorri alden eta Lapurdin, Otxagabiaren aldeko erreka haundi bati *Ugaitz* deritzaio.

Ugárre, lekuizen bezala hauzotegia da, baina Santa Graziko «oppidum»aren azpian dagoen etxe bati Gaztelügarre deritzaio bakarrik Altzain gorde dute esan nahia, beste herrietan baitiote *Üthürbégi*, *Üthursörgia* «manantial»ari. Ugar eta Ugarrá lekuizen moduan txito hedatuak dira Euskal Herri guzian.

Azkenean, gure ibaiak sakratuak ez ziren exkero, gure uren izenak generiko gisakoak dira edo behintzat, hurbilean dagoen mendi baten, hegi baten, arkaitz baten izena, herri baten izena hartuko dute. *Larrainéko ühái-tza*, *Santa Graziko Ühaitzarekin* jüntatzen denean, *Uhaitz-handia* emaiten du (frantsesek inperialki *Saison* izena inposatu diote, iraultzatik landa).

Athe toponimian, ibar batean hestugune bat adierazteko nafar ta gipuzkoar hitzatat hartzen genuen, *Ataun* herrian bazegoen *Ateka* hitza (larraldia adierazteko erabiltzen dena ere) baina Larraine Bentaberriko etxe papearak ikertuz aurkitu dugu *Athegatxétako erreka*, *Athegatxétako baxák*, gaur *Mankhatxéta* izenez ezagutuak (jende asko zauritu egin «mankhatzen» zirelako hor). Ederrena da Bidarraiko Pas de Roland delakoari *Athekagáitzak* erraiten diotela nafartarrek. «Athe» ordea gaurko zubereroaz «meta» bati baizik ez liteke esan. Halere Altxaiko etxe noble bati *Athági* deritzaio, eta Zuberoako herrixka bati *Atheréi*, ez al dute zerikusirik *Athe* horrekin? Eta *Atharratzek*?

Zagita, orain inork ez daki «gezia» dela, baina Santa Grazin stalaktita zorrotzak zeuden kobari, «Zagitetako harpea» esaten zaio, eta Larrainen Axkaraiko oihanean, leku bat *Zagitéta* da eta bestea *Zagitabürü*.

Holtz hitzak zer esangura duen Oihenarteren bidez dakigu, pareta dela ere, eta lekuizen batetan argi ta garbi dago ezen Zuberoako «arrolla» harri-garriena *Holtzártekoa* da (bai *Holtz* artean kurritzen da beheko ura); beste lekuizen batetan ez da agertzen eta inork ez darabilta gehiago izen arrunt bezala hitz hori.

Phikatüak, hitz hori Oihenartek «précipices» itzultzen du baina, ez da generikoa, arrunta, lekuizen berezia baizik gaur mugazainak dauden lekuan Otxagabian, Orhimendiaren magalean.

Odi, bere denboran generikoa izan da ta oraindik Larrainen ta Santa Grazin ibar txiki baten zokoari honela deritzaio. *Odieta* Lekuizena, harrigarriki Euskal Herrian edonon aurkitzen da Zuberoatik Bizkaiaraino. Gero Zuberoan egonaz *Odieta* Liginagako hauzotegia da, *Antsodi* Santa Graziko etxea bada, *Agorródi* Lakarriko. Phikatuearik mendebaldean dagoen oihanari *Abódi* deritzaio naar mugan.

Odi, hitzelkartuetan agertzen da *Odi handia* (Santa Graziko, ibar zoko bat) *Ansódi* (Santa Graziko etxea). Larrainen ere Organbideska ta Orhimen-di tartean *Odixárre* badago; beraz mendi-ibar zola bat lizateke. Beti «h» gabe dago hitza, «hodi» hitzarekin zerikusia ote du.

Arbaillan eta Iteko oihanean, bi hitz bitxi daude, zuberorari gaur arrotz zaizkionak, bata mendi bati *Gallúre* izena gorde zaio, Gipuzkoar ta bizkaitarrenzat argi dena, eta beste zaharkeria, bat ere badago, hau da bi leku izenetan artzain saroeak izendatzeko *Kórta*-ren erabilera, orain gehinbat bizkaieraz ematen dena: *Bohorkortéa* (olhalteak); gero etxeak dira Larrainé *Kortóndoa* Urdiñarbe *Aritxekortéa* ere.

1.a.3 Lekuizen izenkideak

Baso hitza ez da Zuberoan entzuten zuhaizti bat izendatzeko hortarako zuberotarrak »oihan» hitzaz baliatzen direlako; *basa* hitza zuberoraz «salvaje, selvático» adierazteko eta landare, ihize bati lotua agertzen da, *basapíper*, *basasagártze*, *basáhüntz*, *basúrde*, baina lekuizen batean jatorrizko erran nahia izan dezake: Zuberoako mendikaldeari *Basabürü* esaten zaio eta orain ere basotsuena da, Nafarroan badu bere anaikidea. Ondotik ipiniko dudan zerrenda motzak darakusgu eta oroitarazten digu, Alfontso gudukariak zuela Zuberoa antolatu eta nafar herri askok zuberotar herrien izen berdinxxkak dituztela, azken hauk denborarekin aldatuak.

Hitzelkarketaren emaitzak eta hots aldaketak

Taulatxo batean hitzelkartuak ezarriz, hobeki ikus dezakegu hutsik badenetz

Atx + gañe: Axkáñe
Atx + garai: Axkarái
Atx + gorri + aga: Axkorriága
Atx + arte: Atxárte

Ikusten da hor eskaz direla *Atx + buru: Axpuru*, Saraitzuko hauzo ibarrean aurkitzen dena; *Atx + pe: Axpe*, Zuberoatik ekialdetik dagoen ibarra da (fr. Aspe); *Atx + barren: Axparren* ez dago Zuberoan baina ez ote Nafarroako *Azparren* horren etimona.

Honela Aitz/atx Euskal Herri guztian aurki genezake nahiz *Atx* itxurapean Bizkaian baizik ez den hitz arrunta. Ax hitzaren formaz.

Atx hitza ez da sekulan soilik eta bakarrik agertzen – agian silaba bakoitzeko lekuizen batek ezin iraun baidezake – beraz ez dakigu zuberocera zaharreko izen arrunta *aitz* ala *atx* zenetz, ezen egitura hortako beste hizetan zuberera ez da beti hain argi, hitz bakunean «ai» delako eta eratorpenean «a», halaxe:

– *gaitz*, baina *gaxo* eta *gaxto* eta hez + *gaitz*: *hezkatx* hor talde bateko hitza batetik ezin dezakegu arau bat atera zuberoceren bilakaeraz, ezen beste horrelako dudak daude biak esaten baitira

aixkóra ta *axkóra*, *aixkólta* ta *axkólta* eta bestalde kasu batzutan «i»a ez baita erori, nahiz bustidura agertu den

áize ta *aixéxko* badago baina «*axe*» ez zubereraz

Atx-faltsuak

Gure osaba zenaren etxea *Axtégi* da, baina han ez dago arkaitzik, baina baina haritzak; hain zuzen etxeko paperetara jo eta beti *Hariztégi*, agertzen da, ahoskatutako laburpenak ez duela inola loturarik gure *Atx*-arekin.

Harboroxu pleonasmoa ala ez? Phatar, ikhei, pharete ta beste

Borótxu, arkaitza baldinbada, nola diteke harriz ez den arkaitz, *harborótxü* hitza ikusiz? *Borótxü* edo *bótxe* hasieran ez zen itxura hortakoa proba hitzaren bigarren itxura borogü delarik, jatorriz hitza nonbait brotxu, brotxe zen ea hain zuzen Nafarroa behean Ezterenzubi aldean *pótxa* forma dago luzapenik gabe eta Erronkarin *pótxe*, azken hunek zuberocerazko *botxe*-tik hurbiltzen gaitu eta etimon bidean ezartzen ezen herri hortan arkaitz zutari, pendoitzari, esaten zaio, hala ola horko erromantzean «*foz*» eta hau latinetikako *fauce(m)* hitzetik; beraz behar bada hitz zaharrena harbotxe, *harbotxü* zen Latinezko hitz horrek ondoko nasaiak izan ditu: *puech*, *puig*, *puyo*, *foz* eta agian gure botxe ere (*pocha* Aragonen).

Ez lizateke lehen aldia-hain menditar diren gure arbasoek zelaietako frantsesei eta hauzo okzitanoei hitz bat mailegatu dutenik mendiko zerbaiten izendatzeko: oso ezaguna da Iparralde gehienean, Nafarroa behean nola dioten *pantar*, «pentard» dena frantsesez aldapaz mintzatzean, zubereraz *phatár* hitza aldatuago izan arren jatorri berdinekoa izango da, adierazi bera daukalako. Larrañen lekuizen batean agertzen da, aldapa edo aia izendatzeko erro bat, holako aldapa bati *Ikhéia* bait deritzaio, eta Lapurdin *ikhe* «aldapa» delako.

Mubi ditezken arkaitzei oraindikan Santa Grazin, hitz zaharkitu bat gorde da izen arrunt gisa lehenik *phiña* (g. peña) (nahiz *peña*, *pheña* hitza ezagun izan hauzo euskalkietan ere) baina Larrañeko etxe bat da *Phinapérrro* edo *Piñaberho* eta Urdaitx-Santa Grazin bordalte bati *Arphiña* deritzaio (Harri + phiña).

Okzitanieratik hitza badago gipuzkeratik behe-nafarreraino hedatu de-

na, (*h*)*arroka*, Zuberoan, gaur, ezagutzen eta baliatzen ez dena, nahiz Lhande-ren hiztegian agertzen den ez dugu inon ez testu zaharretan irakurtu, ez entzun eta dudan gaude *Arroki Arrokaín* jende izenak eta *Arrokiága* herri izena hortik ote datozen. Hitz horiek zerbait ikusteko dute *Harri + toki: «arroki»* izenarekin alegia harria ateratzen den lekua.

Aldapa esateko *pharête* erromantze batetik dator eta izenlagun bezala ere erabili diteke, baina ez bide baten kalifikatzeko. Phatar eta pharete beren konsonate aspiratuekin mailegu zahar itxura daukate, baina bitxi dena ez da eskulan etxeko horma baten izendatzeko *pharête* erabiliko, gaur behintzat.

Aldapa *malda* esaten dela badakigu baina zuberoteraz *maltá* izen arrunt bezala orain «oihan aldapatsu ta arkaitzduna da», nahiz Larrañeko mendian artzainola aldapatsuenak *Málta* izen berezia daukan, naski bere erromantze etorrian eta lexemen artean, gauza txarraren ezaugarriak baditu.

1.b. Hots-aldaketeen bilakaeraz

Askotan zuberotar izenen transkribapen zaharrak aldatu ditu, batikbat lekuizen nagusiak itxuraldatuxe baina askotan gerta daiteke erdal kutsuko aldaketa horiek oraingo bilakaera azeleratuak baino gutiago desitxuratu dituzten toponimoak; hori aspaldixkan ikusia genuen, eta zuberotar lekuizenen fonetikaren aldaketak jarrai genetzazke okzitanoz idatzitako dokumentuetan, baita zuberotar idazleen XVII-XVIII.mendeko grafietan ere, halaber Jakes Belakoak eta Joan Felipe Belakoak beren kondaira idazki argitara gabetan ematen dituzten zerrendetan. (bazter utzita herri izen bezala galdu den *Berorítze*– gaur Muntori – lehen izena hauzotegi bati ematen zaiolarik orain).

1.b.1. «h» galtzea hitz hasieran

Ez da bakarrik lekuizenetan baina izen arruntetan ere ematen geroago ikusiko dugunez, baina harriduraz eta dudaz dabilta Iparraldeko «manexak», jende izenetan zuberotar direla ikustean: *Iribe*, *Irigaray*, *Irigoyen*, hastapeneko «h» gabe. Lekuizenetan ere – nahiz Tartas-ek etimologia gustuz *Hiruhiri* idazten duen – garai berean Bela-k *Irúri* ematen digu eta herriak gauregun I(r)u(r)i dio.

1.b.2. Hitzelkartuan «Iri-», «Ira-» bilakatzea

Jendeizenak nahikoa fosilisuak diren ezkerre ez dute erakusten kanbio hori, baina etxe-izenetan agertzenago da ezen hor erabilaren erabiliz higitzenago baitira izenak eta *etxe izenetan*

Hiri + goihen: Iragóihen
Hiri + guren: Iragúren
Hiri + garai: Iragárai
Hiri + barne: Irabárne

Hain zuzen, azken Irabarne hau, etxeizen izanik herri izen izatera igaro da, eta frantsesezko itxuran *Libarrenx* baldin bada (alegia *iribarrensis*), ok-

zitanoz *Libarren* ta Jakes Belako jaunarentzat *Iribarren*, gaur *I(r)abarne* da, etxeizenen araua betez. Etxe izenetan, gertatu den *iri/ira-* erroaren aldaketa, ia beti betetzen da, eta hain zuzen, Mendi herrian gure askazi ziren famili adarrean *Irigaray* sinatzen zuten ta etxeari beti *I(r)aga(r)ai Mendi* esaten zitzaion.

1.b.3. *Etxe/etxa-* erroaren aldikatzea

Txandaketa horren arauak ez dira hain argi: Santa Grazin hauzoko etxe bati, batek *Etxebárne*, besteak *Etxabárne* errango dio, ta berdin Ligin batzuk *Etxegó(r)en* besteek *Etxagó(r)en*, batzuk *Elixegá(r)ai*, besteek *Elixagá(r)ai* nola nahi ere asimilaketa desasimilaketa joku hortan bebarbada lehen bi kasutan hitzelkartu zaharretan gertatu ohi zen soinu aldaketa «e»/«a» aldatzeari hitzaren juntan, halaber «o», «u» «ü», «a» bilakatzearena arrunta da, baina «i»/«a» delakoarena arraroago da, hemen bereiziki ez baita aditz baten emateko, hala nola *eme/ematu*, eta holako. Agian, herri etimonez ta beste hitzelkartuen kutsuz sortu zaizkigu *Iragarai* ta beste holakoak.

Etxe-ren kasuan arau zaharrez *Etxa-* behar lizateke baina dakusagunez ez da beti aplikatzen, bi joerak hortatik urrunt dezaketelako herri-etimologiak edo idazleen etimologia argiago(?) baterako joerak. Halere *Etxa-* itxura zaharrekoa baldin badirudi *Ira-* berria lizateke, lekukotasun zaharragoa topatu arte, behintzat.

1.b.4. *Barren-*en bilakaera etxe-izenetan

Zuberoako zentsuan agertzen diren forma aldatu gabe emango dut hemen zeren historilariak ohi duten gisa ez ditugu oraingo grafia arauzkatu batean ipiñiko. «Barren» bekoari esaten zela denok dakigu, Erdi-Haroko dokumentutik XVII.mendean aldatu ziren etxe izenen artean ez da bi izen forma historilariak aldatzen dituzten bezala baina lau: *Barren /Barhen /Barre* ta *Barne*; gero *etxe* «etche» nahiz «eche» idatzia da, lehena frantses grafiaz, bigarrena gaztelaniazkoa, azkenik *Iribarren* batzutan *Libarren* gisa agertzen da, gaskoin kutsuz.

1. Itxura zaharrena: *-barren* (sei izen)
Barren: 1, Libarren: 3, Iribarren: 1, Barreneche: 1
2. Itxura berriagoa(?): *-barhen* (zazpi etxe izen)
Barhena: 1 Barheneche, Barheneche: 6
3. Laburduraz edo: *-Barr(e)* (bi izen)
Barreche: 2
4. Oraingo itxuraz (hamar izen)
Iribarne: 4, Echebarne: 5, Barneche: 1

Testu hori XIV-XV.gizaldikoa izanki geroztik egia esan *barren* gehienak – etxe izenetan – *barne* bilakatu dira ez ordea Santa Grazin *Eiherabarren*; gero jende izenetan batzutan irau du: *Barrène*, baina hor ere idatziak izan arren *-barne* aldatu. *Barhen* hobeki gorde da *Barhan* bilakaturik: *Barhanbórda* (Larraineko etxea) *Barhantóla* (Santa Graziko etxea)

Orain euskaraz Zuberoan «bekoari» ez zaio «barren» esaten, *-peko*

baizik eta herri askotan bikunki agertzen da izen berriagoa, dokumentu zaharretan ere *Pekoetxéa* (bi izen) baina gehiago *Garaikoetxéa*, *Garikoxéa* (bost izen).

1.b.5 Berze, bertze/beste

Lehenbiziko itxurapean «bertze» agertzen zaigu leku izenetan, nahiz Zuberoako zentsuan *Echeversea* (Xarrikota ta Bildoze) hamalau ta hamabostgarren mendeetan; halaber Biarnoko zentsuan eta bearnes eskribauek aldatua Azpildan *Cheverce* da 1385.an, Xarran *Estebers*, Lexosen *Xerbece ta Cheverce*, euskaldun izandako herrietan. Hamazpigarren mendeko eliza liburutan beste agertzen da, orduan, pentsatzeko da nonbait bertze/beste aldaketa XVI.mendean egin dela.

Halere beranduxeago bertze agertzen da ez zaharkeria gisa, baina eskolakeria moduan edo eskolatasun, bezala Lapurdiera ihakindatuz (Berze, XVII.mendean Oihenarten obran, baina ez du zuberoraz idazten, berze Egiategik ere kasurik egiten ez duenean eta hitz-elkartuak –beste darabila: *hainbeste*, *bestelan* eta holako. Gaur, ordea, osoki galdu da bertze zuberoratik eta astekaria galantak deritzat hiztegi batean hitz itxura horren atzetik Ipar.edo Iparralde ipintze hori zuberoraz denek baitiote «beste» Besterik gabe.

Errotazismoaren alderantzi hortan, zuberorak badu bere araua ez baitu kasu guztietan aplikatzen «rtz» hirukoitza denean eta aurretik «h» rik ez badago, gipuzkera-bizkaiera euskalkien antzera egiten du eta halaxe baditugu alde batetik: *ostégün*, *ostirále*, *ostádar*, *bost*, *béste*, baina euskalki guztien moduan *hartz*; .bi konsonante «rz» dagoenean zuberorak bi itxurapen baditu bata aldatu gabekoa, bestea bustiduraz: *érze/érxe*, *úrzo/úrxo*, *úrzáphal*, edo bat *úrśáin* (domenistikua). Bilakaera hori zuberoraz ematen da baina Garazin ere, beste diote baina *bertzainez* eta *bertzeak bertze*, azpieuskalki honetan aldaketa berriagoa delako.

1.c. Lekuizenen konparaketa taulak

Laburpenak: e:etxe, ib:ibar, er:erreka, m:mendi, l.i.:lekuizen hz:hautotegi, lp:lepo, mendi ate. G. Gipuzkoa B: Bizkaia. Leh:lehen. j.i: jende izen.zb:zubi.

Zuberoa	Nafarroa	Araba
Ahetze (hz. Urdiñarbe)	Aetz (ib.)	Aezbakar (e.)
Algorri (e. Larrañe)	Algorri (l.i. Iturmendi)	
Aloz, Aloze (h.)	Alos (l.i. G.)	
Althabe, Althape (e.)	Aldaba (Lizasoian)	Aldabe (hz. Gasteiz)
	Aldabea (l.i. Ororbia)	
Altzai (Altza Garai leh.)	Altza (Baztan) (h.)	Altzaya (m.) Arramaio
	Altzugarai (e. Etxalar)	
Añharbe (h.)	Añorbe (l.i. Izarbe)	Añarbe (m.) (G.)
Andoze (hz. Ligi)	Andosilla (h. Erribera)	Andosketa (h.)
Arhane (h.)	Arano (h. Basaburu)	Arane (L.i. Langarika Ulibarri)
Aranbeltz (hz.)		Aranbaltza (Ulibarri bengoa, l.i.)
Aranburu (e.) (edonon)	Aranburu (e.) (non nahi)	Aranburu (e. ta m. Martioda)

AINTZINAKO ZUBERERAREN AZTARNA BATZU

Zuberoa	Nafarroa	Araba
Arroki (e.) (j.i.)	Arroki (j.i.)	Arroki (l.i. Gamarra)
Arrokiaga (h.)		
Aranguren (er.) (Urdaingarbe)	Aranguren (h.)	Aranguren (ib.)
Artxu (e.j.i.)	Artxubia (er. ta zb Iza)	Artxu (l.i. Langarika)
Aspilda (h.)		Aspilde (e. Errotegi)
Atharratze (h.)	Atarrabia (h.)	
Atxarte (m.) (Urdaix)	Aitzarte (m.)	Atxarte (m. lp, e.)
Axkañe- (m.) (Larrañe)	Aizgaña (Zuasti, m.)	Azkañ (Zikujano, m.)
Axkarai (m.)		Axkarai Arrieta (m. Aretxabaleta)
Axkorriaga (m. Urdaix)		Azkorri (Subijana, m.)
Azketa (e.)	Azketa (l.i. Solana)	
Basabürü (ib.)	Basaburu (ib.)	Basaburu (l.i. Ali)
Belai (lp. Larrañe)	Belate (lp.)	Belaia (l.i. Larrinbe)
Berroeta (hz.e.l.i.)	Berroeta (h. Baztan) (Saracen l.i.)	Berro (Kintana, Ulibarri) Berroeta (l.i. Andako)
Doneztebe	Doneztebe (h.)	Doneztebe (bost etxe)
Dorondagaña (m. Urdaix-Santa Grazi)	Drona (e. Erronkari)	Durunagaña (m.)
Doronda (e. Larrañe, Santa Grazi)	Dorrondo (l.i., Eritze Otxobi)	Dorrondo (l.i.)
Ekeia (m. Larrañe)	Ekai (rakil Longida m)	
Etxarri (h.)	Etxarri (h. Larraun)	Etxabarri (h.)
Garindañe (h.)	Garinoain (h. Orba)	Galindez (j.i.)
	Gerendiain (h. Elortza)	
Hegillor (m. Larrañe)	Egillor (h. Iza)	Egileor (h.)
Iribarren (leh) Irabarne	Iribarren (h.)	
Iruri (leh. Hiruri) (?) (h.)	Irurita (h.)	Iruri (m.)
Izarbe (m.)	Izarbe (ib.)	Izarberatza (l.i.)
Lakharri (h.)	Lakar, Lakarra (l.il, m.j.i.)	Lakarra (e. Larrea)
Lanbara, Lanbarre (hz.) (Lanbarren?)		Lanbarri, Lanbarrieta (izen arrunta, non nahi)
Larrañe (h.)	Larrañe (h. Urraul goiti) Larraun (ib.)	Larrinbe, Larrinzar (h.)
Laze (hz.)	Laze (j.i.)	Laze (e. hermua, Elosua)
Ligi (h.)	Ligin (h. Lehen)	
Liginaga (h.)	Likingaina	Likiñaga (e.)
	Likinpea (e.)	
Lizar, Lextarre (h.)	Lizarra (h.)	Leizar (Nanclares Ganboa)
Mendibil (h.)	Mendibil (H. Izarbe Orba)	Mendibil (h. Arrazua)
Mendikota (h.)	Mendikota (l.i. Saratsa)	
Montori, Muntori (h.)		Montoria, Montoia (h. Penacerrada)
Muskildi (h.)	Muskilda (l.i. Otxagabia)	
	Muskiritz (h.)	
Narbe (hz.)		Narbe (e. Azkoaga)
Odieta (hz. Liginaga)	Odieta (ib.)	Odieta (l.i. Gibixo)
Ozagañe (h.)	Ozakañ (Olaibar, l.i.)	Ozakainena (e.)
Ozaze (h.)	Osate (l.i. Orderitze)	Ozaka, Ozate (e.)
Phagola, Pagola (h.)	Pagola (h.j.i.)	
Santa Grazi, vel Urdaix (h.)	Santa Engracia (h.) (Tuteraldean)	Santa Engracia (hz Garaioa) (Lekeitio.B.)
Sarra, Xarra	Sarria (ib.)	Sarra (l.i. Eskerrekotxa)
Sarrikota (h.)	Sarekota (l.i. Zubieta)	Sarri (h.e.hz)
Sobe (m.)		Sobea (l.i. Villamaden)
Sorhueta, Sohüeta (h.)		Soloeta (e.)
Sugarreta (e.)	Sugarreta (l.i. Oltza)	Zugarreta (l.i. Ororbia, e.)
Ugarre (hz)	Ugar (l.i.) Ugarr (e.) (Yerri ibar)	
Undüräñe (h.)	Indurain (h.)	
	Induspe (l.i.)	Induspe (m,e.)
Urdax (h.) Urdaite (lp.ibidem)	Urdaitz (h. Ezteribar) Urdazubi (Baztan)	Urdaitz (Ulibarri-Jauregui) (Urdaspe Sabando)

Zuberoa	Nafarroa	Araba
Urrüstoi (h.) Zibiri (hz) (leh. Zübiri) Zihiga (h.)	Urritzola (h.) Zubiri (h.) Ziga (h. Baztan)	Urrestuia (e. Sabando Ulibarri-Arana) Zibiluzea (Burgelu l.i. Larrea, e.)

Beraz zerrenda honek darakusa Zuberoako herri gehienak eta lekuizen asko Nafarroan ta Araban aurkitzen direla, aintziñako batasun bat erakutsiz. Zuberoako herrian artean bat edo beste bereziago da, nahiz hurbileko izenak badiren: *Gotáñe*/Gotaran, *Gotape* (l.i. A.), *Idáunze*/Idazaran (l.i.A.) *Altzürrükü*/Altzurrun, *Altzu* (l.i.j.i. N.) *Oniz*, *Oníze*/Oiz, *Aniz* (h.N.) *Zúnhar*, *Zunharréta* *Züháre*/Zumarreta, *Zumardi* (l.i.) *Domintxáñe* (h.)/Domeño (h.N.) *Ithorrótz*/Iturrotz (h.A. l.i.N.) *Lohitzüne*/Lokitz (m.N.) *Beroriz*/Beroriz (N.) Orainarte *Larhüntze*, *Oihérgi*, *Olháibi Bildóze* herrien izenkide hurbilik ez dugu aurkitu. Beraz esan dezakegu lekuizenetan oinarritzko hiztegi zahar bat topatzen dugula euskalki guztien altxorra izan dena eta euskalki bakoitzak besteen laguntza gabe, gaur, uler ez dezakeana. Egia da, garai batean gure jaunak erdaldun izanki, gure lekuizenak erdaldundu dituztela ta herri bati foru berria ematean izena aldatu halaxe Zuberoan Urdaitx, Santa Grazi bilakatu zen, Beroritze, Montori, eta Maule erdal izena eman Zuberoako gaztelu nagusiari. Hain zuzen errege-hiri bilakatu dira herri horietan Maule, Montori Santa Grazi eta *Barkóixe*; azken hunentzako forma zaharrena Barkuix, Barkoix da Jende izen batek, bere hitzelkartu itxuran emaiten digu zaharrena *Barcoisbide* familia baitago. Izen horrek beste euskal izen zaharra gogoratzen du Barcos, jansenista ospetsu batena, beraz etxe batek eman dio herriari izena, maiz gertatu den bezala.

Zerrenda luze horrek ere lekuizenan bilakaera erakusten digu, esate baterako gaskoinek gure herrien izenak itzultzen dituztenean, halaxe *Altza garai* izen zaharra *Auciet jusun* bihurtzen dute, *Altzabeheti*, *Auciet suson*. Lehen izena gaur euskaraz ta frantsesez erdibidean dago *Altzái*/Alçay eta bigarrena osorik gelditu da *Altzabehéti*/Alçabehety. Gero delako zuhaitzari «haltza» diogu eta beharbada hor ez dugu landarearen izenik.

Iribarren-en kasua bitxia da, ezen frantses-gaskoin itxuran *Libarrenx*, aintziña *Libarren* baita.

1. Itxura horrek «barren» zaharra gorde du eta oraingo zuberoraz *Irabarne* baitiote, geroago ikusiko dugun arau berriz.

2. Bigarrenik okzitanoak euskararekin daukan joera da, Nafar erro-mantzeak izan duena alegia *Iri*, *Irun-Li-* bilakatzea. Biarnora emigratu euskaldunei aintziña *Ligarai*, *Ligoyen*, *Libarren* izenak aldatu ziozkaten.

Gure lerrokada hortan iruri ta Iribarren-ek berriro erakusten digute erdaldunek «etxe=villa ta «hiri=villa» erabiltzen duten gisa gure aurrekoek «hiri» ez zutela guk orain «ciudad» bezala erabiltzen, baina «pueblo» esan nahian (gaur herri, herrixka)., ezen seme gazte batek borda bat etxetzen zuenean, herri berdinean bi etxeak bereizteko mendikoari, bazterrekoari -borda, gaineratzen zitzaion eta herrixkakoari -hiri: *Oxtehiri*/*Oxtebórda*; *Sagaspehiri*/*Sagaspebórda* *Ligetxhiri*, *Ligetxbórda* eta halaxe.

Zuberoraren zaharkeria horietaz hiztegitxoia egin genezake

- Áltza: *haltz* ala *altz* behar luke, beharbada *altxatu*, da «a» gorde baitu.
- Áran, Arháne: gaur, *ibar* esaten da.
- Arphíña: gaur bakarrik Santa Grazin.
- Arroka: gaur, *bo (r)ótxe*, *borótxü*.
- Athe: gaur, *hersüüne* edo *baxá*.
- Atx: gaur *hárrri* edo *bo (r)ótxü*, *bo (r)ótxe*
- Bárren: orain, *bárne* baina beste adierazi batekin *bárren* «beko» baitzen aintziña, ta *barne* «*barru*»
- Báso: *orain*, *óihan*.
- Bérro: *adierazi zaharrean xárra* ere badago, gaur *maltá*.
- Kórta: gaur *ólha*, *olhálte*.
- Gallúre: gaur, *phúnta*, *túntür*, *tüntürrótx*.
- Hóltz: gaur *mürü*, *harrési*.
- Íbi: gaur, *erréka igarángia*, *hur mehúne* perifrasiak.
- Ikhéi: *phatár*, *pharéte* oraingo zubereraz.
- Iri/híri: lehenago etxea gero herrixka, orain «ciudad» «kalea»
- Lats: bakarrik hitzeratorrietan agertzen da *latsatü*: arropa garbitu
- Odi: Ibar mendi sakonunea, gaur *nabá* hitz hurbilena.
- Phíña: bakarrik Santa Grazin, besteetan *harrimókhor* erabiliena, edo *harrikantál* (Basabürüan).
- Zagíta: gaur «flexa» erdarakada entzuten da.

2. «IZEN TXIPIAK» ZUBEROERAZ

Ondotik emango ditudan izenak beren itxura zaharrean, españoltzat emanak dira, orain zuberotarrengandik, ezen ikusiko dugunez izen txipietaraino sartu da legezko frantseseta Zuberoan, idatzian behintzat, orain gutxi arte ta berrehun ta berrogeitahamar urteez euskal izenek ez zuten sarrerarik frantses «état-civil» edo partida liburuetan. Hona bereziki J.B. Orpustan-ek *Bulletin du Musée Basque* delakoan argitaratu 1337.an zuberotarrek nafar erregeari egin zinean hartu ditudanak, baita Erregearen «Censier gothique» Paueko artxiboan dagoenetik ere bai, gaur dirautenak kontutan harturik.

- 2.1. Antso (ik. Santz, Santxo) Santa Graziko etxe bati Antsodi deritzaio; Antso izen gisa galdua da.
- 2.2. Arlande (Arnaldo). Arlande deritzaio Oihenarteri XVII.gizaldian (Arnalt, Arnaut da gaskoinez), gero gure Santa Graziko etxearen berritzailea 1779.an Arlande Ibar da.; «r» dun hitz askorekin gertatu den bezala zubereroaz geroago bustiduradun hitza bakarrik gordeko da, ezen XX.mendean *Allánde* ta *Allále* txipigarriak baizik ez direlako begiratu. (dokumentuetan *Arnalt*, gaskoina)

- 2.3. Blasko. Izen hau Erdi-Haroan Iparraldean ta Biarnon erabilia izan da. Ligiko etxe bati *Baskoène* deritzaio baina paperetan *Blaskoène*; etxe hau duela hamar urte erori egin da.
- 2.4. Domingo. Oraindik baina gutxi erabiltzen da. Gure Santa Graziko hauzotegian bost garen ezkerro, honela bereizten gara: Dominika, Domenixe, Dome (Korsikako izena) Domingo ta Txomin. Zuberoko zentsuan (XIV-XV.mendekoa) eskulangileen izenak ematen dira –nekazarien etxeizenak– ea Atarratzeko Hiriberrian hiru Domingo daude ta 1337.ko zinean Domingo bat; gero frantses dokumentuetan beti Dominique agertzen da gaur, nahiz XVIII.mendean batzutan Domingo onartua den.
- 2.5. Eneko (ik. Iñazio)
Zuberotarren zinean «espanol izen» hau *lau bider* irakurtzen da eta behin zentsuan, Atarratzeko eskulangileen artean. Bigarren kasuan espanola liteke, baina lehenbizikoak derigoz zuberotarrak dira, zin egiteko baldintza delako. Gaur izenez aldatu edo galdu den etxe bati XVIII.mendean Barkoixe Peille-neko dokumentu batean *Enekoiz* agertzen da.
Hemeretzigarren ta hogeigarren mendeetan ez da izen hori azaltzen, baina «benetan espanol burua» daukan Iñazio, hala nola Iñazio Iribe «Harixlür» amaren lehengusua.
- 2.6. Fortanesco.
Hau hibridoa da, Fortaner okzitano izena baita – ko euskal txipigarria, Atarratze Hiriberriko eskulangile baten izena da.
- 2.7. Garciato.
Euskarazko –to txipigarriarekin Atarratzen zaigu eskulangileen artean agertzen, Maulen, berriz, bernes jendakia baita bizizale okzitanozko *Gassiot* da irakurtzen. Izen hori Zuberoan osoki espanol bezala daukate, baina 1337.ko zuberotar zinegileen artean sei Garsia/Gassia agertzen dira.
- 2.8. Honela deritzaio euskaraz, baina dokumentuak Zuberoan, ainziña okzitaneraz izanki beti Guilhem edo Wilhem itxurapean agertzen da. Ipuinetan lamiña izena da. Gaur, euskarazko eta okzitanierazko formak galdu egin dira.
- 2.9. Otsoa.
Hemen bereizi behar dira basa-ehizearen izena darabiltenak eta jende izena dutenak, nahiz ez den beti erreza egitea. *Lope* agertzen denean ez da dudarik 1337.ko zuberotar zinegileen artean.
Zuberotarren zinegitean Ligiko ordezkari bezala agertzen da *Otsoe de Echaguren*: harriduraz entzun dute oraingo Etxagurentarrek, erran diedanean. Etxe izenetan beharbada gorde da hala nola Atarratzeko *Otsoaitz* (*Otsogaitz*) gaur *Oxtoatx* etxea. Atarratzeko *Oxaran* eta *Oxaybie* etxeak Erdi-Haroan eta gaurko Gameren *Otxibar*, agian basa-ehize diren otsoekin zer ikusia lukete.
- 2.10. Oxanda.
Ez da lekukotasunik jende izen bezala erabili dela ta trenkatu gabe utziko dugu Muskildin den Oxandaberro-ren etimologia.

2.11. Peillen.

Peillella edo Pelhella-ren Erdi-Haroko itxura bezala agertzen zaigu XIV.mendeko Baionako gaskoin paperetan, anaia bati baiteritzaio *Enecco de Larramendi* besteari *Peillen de Larramendi*. Barkoixeko herri kaskoan Maidalenako bidean Erdi-Haroan zegoen Errekarte etxea, ta horkoek beti Petiri izena zerabilten XVI.mendean hasita 1730.raino, horregatik etxearen izena «Peillen» aldatu zen ta etxeok ere beren Errekarte utzita Peillen izena hartu 1720.urteetik goiti. Urte haietan hain zuzen dokumentuetan Petiri izenaren lekuan «Pierre» frantsesa inposatua da, etxaldeko azken jabea ere Jean-Pierre deitzen dute.

(Izen ordekoak benetakoa galeraz lezake, gure hauzoko jendeak txiki izanki Nañe esaten diote eta berek onartu dute eta etxeari esaten dute *Nañetegía* paperetan *Hardoizaharra* delarik)

2.11. Petiri, Phetiri.

Ahozko erabileran bizirik dago hau, baina azken urtetaraino frantses dokumentuetan debekatua zen, eta XVIII.mendean abiatu ohituraren gatik. *Pette*, Petiri-ren beste itxura ez da dokumentu zaharretan irakurtzen.

2.12. Petirico.

Aurreko Fortanesco -ren kasuan bezala -ko txipigarria erantsi zaio. Atarratzeko Hiriberrian jostuna da.

2.13. Santz.

Zuberotar zinegileen artean 1337.an, Martin Santz bat dago, bost Arnaut Santz, eta bi Lope Santz; beraz izen dau bakarrik gutxitan agertzen da, gure egunetaraino ez da iritxi non ez den gosearen sinbolo bezala den Petiri Santz izenarekin. *Berterretxen kantorean* XV.mendean hartu ta hiltzen duten gizonaren ama *Mari-Santz* da.

Ez dakit Santz itxurapean okzitaniera denez agertzen, ezen Santz soila jende ta etxe izenetan agertzen baita *Santzenea* (Zuberoan Xarrikotan, cf izen berdina Zarautzeko kultura etxe bilakatu denarera) Lapurdin Sanzberro, Sansinena ta holakoak jendeizen dira, baina Gaskoinian Sans eta Pessans ere.

2.14. Santzo.

Hau, Atarratzeko Hiriberrian esku, langillea dugu zentsuan, baina 1337.an zinegileetan egiatzko zuberotar batek Santxo izena dakar.

Atarratzen euskarazko -ko ta -to txipigarriak eta hispaniar kutsuko ta euskal kutsuko izenak agertzen direlarik Maulen okzitanierazkoak nagusi dira eta haiek -et eta -ot txipigarriak hartzen: Arramonet, Bertranet, Erramonet, Gassiot, Guillemot (beste izenak Bizentz, Get Guiraut, Guimon, Marixe, Marianne Oliver Pes Perer, Navarrine) Halere dokumentu askotan ta euskaldunak aipatzen direnean ere gaskoin eskribanoek izenen gaskointzeko joera badute.

«Izen txipiekin» -ko atzizkia galdu da eta -to bustiduraz aldatu -tto emanaz: *Erramúntto*, *Allandétto*, *Maddaléntto*, *Maddítto*. Bustidura soilaz

egiten dira txipigarriak edo bustidura kenduz handigarria, halaxe binaka baditugu *Anton/anttóni, Batista/Battitta, Manéz/Manéx* bustiduraduna argal edo txipi bati, eta bustiduragabekoa handi, gotor, lodi edo zatar bati erraiten zaio.

Hirurgarren bilakaera, azken berrogeitahamar urteetan eman da eta gehien bat Mauleko bearnes batzuen eraginaz, bearnesekin izan harremane-kin, hala sortu dira hibridoak «txipi» esan nahia euskal sistemak emanaz, «lodi, pottolo» esangura gaskoinak. «u» erantsiz; holako ditugu: *Battittú, Allandú, Beñatú, Kattú, Maillalú* (Maddalen)

Azken bilakaera bat legoke duela bospasei urte sartu dena frantses izen bat legoke duela bospasei urte sartzea hala nola *Jeannot/žano/, Pierrot/Pierro/* eta modako edozein frantses izenek ohiturazkoen lekua hartzen zutelarik aintziñako izenena etorri da, ezen XVI.mendetik nere osaba aita, izeba amaraino iraun zuten: *Allánde, Beñát, Joanés, Maddí, Maddalén, Maidér*. Hamazortzigarren mendean galdu zen *Joana* ere berriz agertu da ahide euskaldunen artean.

4. Galdutako hitzen kondarrak hitzelkartuetan

Eguneroko eta oraingo zubereraz «arrotz» diren hitzak noizbait erabili zirelako probak baditugu, ez bakarrik aurretik lekuizen zaharretan eta oraingoetan, eguneroko hitz arruntetan baizik. Huna adibide bakan batzu.

4.a. Atz

Hitz hori eskuaren bost atal luzeak adierazteko ez da gehiago entzuten zuberotan eta testu zaharretan ere ez zaigu agertzen, baina aintziñago Erdi-Haroan zuberotarrak hitz horrez baliatu ziren.

Lehenik. Abereen atzaparrak adierazteko, ezen lauoin dun animale batek laister egiten duenean «*lauházka*» ibiltzen dela baitiote. *Hatzózki* esaten zaio aztarnari.

Bigarrenik. Eskuarekin hartu ta harrapatu adierazteko zuberoraz *atze-man, hartzáman* darabilate (batzutan «h» gabe)

Hirugarrenik. Atzekin egin ohi den beste ekintza bat ere eratorpenez erro hortakoa da, alegia *Hatz egin* eta *hazkatü* (hots hatz ematen duen min baten karrakatzea)

Laugarrenik. Atzaren puntan dagoen keratina azalari, nahiz abereetan nahiz jendeetan *azázkal* edo *azüzkúlü* da («h» gabe agian hitzak lau silaba dituelako)

Bostgarrenik. Beste hitzelkartu oso erabilia ihizeez aberez mintzo *az-tápar* da («h» gabe hasieran)

Ohargarria ta jakingarria, «digitus» *erhi* esaten delarik, atzen izena izan ezik, eratorriak eta elkartuak «atz» ekin egin zirela, atz ere izen arrunta zelarik zuberoraz. Beste ohar bat da, alderantziz euskara guztian «erhi» hitzak, *errestun erheztun, erraztun, erhaztün* eman duela, baita Tolosaldean geuk gehienetan «ditare» dioguna haiek «erikoa» diotela atzpuntan ipintzen den burdinari, jostean orratzak azala zista ez dezan.

4.b. Aurkitu

Aditz hau ez da zubereraz batere ezaguna baina zerbait eskupean daukazula adierazteko *aurkhinian* dela esan dezakezu, baita arropa batean, oihal batean alde onari *aurkhia* deritzaiote.; eta laister ikusarte esateko *aurkhixe* ere bai. Hamazortzigarren gizaldiko pastoraletan (Antioxiako Jon Done Julian) *aurkho* irakur diteke, *aurkhitik* atera «legezko, zuzeneko» adierazteko Beraz aditz hori zubereraz erabili izan da, gaur eratorpen batzutan baizik aurkitzen ez bada ere.

4.c. Aldatu

Aldiz hau ez da zubereraz ulertzen, *khanbiätü* baitiote, halere bazter adierazpen bezala –adin bateko jendeek ez gazteek– *althatü* erabil dezakete baina «arropaz *khanbiätü*» adierazteko.

4.d. Alkate

Hitz hau kanpotar hitz bezala ezaguna da, baina Basabürüan behintzat jende izena da *Alkhát* eta *Alkhatbórda*. Garai batean Larrañen auzapezari hala zioten, orain «mera» frantsesetik hartua.

4.e. Aldapa

Hitz hunen zubererazko itxura *Althábe* lizateke, gaur jende ta etxe izenetan aurkitzen dena bakarrik (*phatár*, *pharéte* hitzek lekua harturik) Santa Grazin *althápe* darabilate oraindik «hegi» baten aldapa esateko baina ez mendi batentzat.

4.f. Altxo, *altxon* (artzain)

Hitz hau ez da gehiago erabiltzen, *altxubide* bat zer den ia artzain zaharrek dakite; pentsa orduan zer etimon dagoen Santa Graziko *Altsáso* hauzotegiaren azpian.

4.g. Arbel

Izen hau ez da gehiago erabiltzen arruntean pizarra-rentzat «losa» erraiten baita, baina jende ta etxe izenetan bai *Arbelétxe*, *Arbél*, *Arbelóndo* eta abar.

4.h. Ardano

Orain eta beste lekukotasunik gabe *ardu* diote zubereraz, baina hitzelkartuetan: *ardanoí* (ardan(o) + oi) ardozale amorratuarentzat.

Bitxi da nola zurra usteltzen eta zimentua edo losa erraustsean doanean

Santa Grazin *ardántü* dela diotelako, beste herritan *arhátü* diote, bigarren hitz hau hiztegieta ez dagoelarik.

4.i. Atze

Atze -ari «gibel» esaten zaio beste iparraldeko euskalkietan bezala zubereroaz, baina ez dakigularik «etzan» en metatesia den ala ez *átze* esaten zaio artzainak lo egiteko daukan zurrezko oheari, lehenik; *átze* -k ere «kanpotar» esangura du, baina oso gutti erabilia eta nekez ulertua da gaur, bigarrenik.

4.j. Azpi

Azpi adierazteko «pe» «peko» da zubereroaz. Azpi zubereroaz «izter» da ta ez da «ardi-azpía» ta «jente-azpía» bereizten hitzez.

4.k. Barrendatu

Barhendátü, mende hastapenean zerabilten zuberotarrek, sakondu adierazteko ea naski zerikusi handia du toponimian ikusi dugun *barren* delakoarekin. Ez du okzitanozko «barreia» sakabanatu hitzarekin ezer ikusteko, ez baitakit zergatik behean dagoena goian dagoena baino sakabana-tuago den?

4.l. Baso

Ez da «oihan» adierazteko erabiltzen eta iñon ez da agertzen lekuizenetan horren lekuan, baina erran beharra dago, lekuizenetan zati arrunta dela eta hizki xeheetan agertzen dela adibidez *Iteko oihána Axkáraiko oihána* delakoetan. Halere baso erabilia izan da noizpait Zubereroan ezen izen lagun bezala erran baiditake salbaje batez «gizon basa» eta arrazaz basokoa dena «basa-gizona», bigarren hau lehenbizikoaren alderantziz goxoa izan ditekelako.

Halaber etxeko abere ez direnak, zubereroaz *basa-ihizeak* dira -nahiz animale ta jende bortitzei esan diteke *abreak* direla eta ez *basa-ihizeak*-, halaber baratzeko ta alorreko ez diren landareak *basa-landareak* dira -senda belarrak izan ezik- landatutakoak haina emankorrak ez direnak.

4.m. Bedar

Zubereroaz ez da «bedar» esaten «belhar» baizik baina hitzelkartu gehienetan *beda*- erroa zaigu agertzen zubereroaz ere aintziña, gaur bizkaieraz bezala «bedar» ziotelako probaz, hona eratorpen ta hitz elkartu batzu zubereroaz:

- Bedar + ats = *bedáts* «udaberri», alegia belarra sortzen den garaia.
- Bedar + azi = *bedázi* «belar hazi»

- Bedar + haro = *bedáro*, belar egiteko haro edo eguraldi ederra, txarrean tartekatua.
- Bedar + katü = *bedakátü*, belar iraultzea, itzultzea eskuarra erabiliz.
- Bedar + hoki = *bedóki*, belar zen lekuan urrengo urtean laborea egin den tokia.
- Bedar + jo = *bedajó*, belar gehiegi jandako ardiari sabela, zorroa aunditzen zaíonean.
- Bedar + ophil = *bedóphil*, belar pilatxoa.

Ez dira jatorri berdineko, *bedói* (gask. bedolh) *bedañ* (gask. bedan) *bedamín* (behazun + min)

4.n. Bede

Hori izango zen «bat»en itxura zaharra, zubereroaz behintzat eraorpen hauk gorde direlako

bedéra: bana
bederén: behintzat
bede(r)átzü: bederatzi

4.o. Elur

Ez da sekulan hizelkartuetan «edur» itxurapean azaltzen, beti «elhür» dago.

4.p. Herro, erro

Lehena ez da eratorpenetan baizik agertzen, ditidunen bularraz mintzatzean, *herrápe* baita izen arrunta, *herramín* «herro min». *Érro* berriz «raiz, sustrai» da, beste izenez «zain»

4.r. Gara

«Gara» bizkaieraz burgain kasko bezala erabiltzen badute, zubereraz hitzelkartu ta eratorpenetan bakarrik topa genezake.

Garkhótxe, garhóndo: «nuca»
garmútz: ilemotz, anderentzat

Beraz noizpait zubereroaz ere «gara» esan zen, baita Nafar-lapurdieraz ere, haiek *garbál* ta *gartsoil* delakoez baliatzen baitira.

4.s. Geriza

Geriza ez da zubereroaz ulertzen, baina «*axolbean járri, atherbestátü, gorkhüstátü*» ren adierazkidea da «*gerizatü*»

4.t. Ile

Orain zubereroaz burukoari ere «bilho» diote baina iletik hartu borrokan, *ilhástü* da, eta borrokari ilhastea deritzaio; bestelan «ilhe» ardientzat erabiltzen da.

4.u. Ixe

*Ixe*ki, *iraze*ki aditzak Bizkai aldean idoroiten dira, zubereroaz, bakarrik humeekin hitz egitean eta sua erakutsiz esaten zaiete «*kasü ixé!*»

4.v. Ixtitu

Aixtítü, atzera eragin abereak esangura du eta *guri áitzi* «gure aurka», aitzitik «alderantziz» da Naski jendeak «gibelarazten» dira ez aixtitzen.

4.w. Izter

Jende izterarentzat «azpi» dela zubereroaz ikusi dugu, baina halere belau atzeari *iztezáiñ* esaten zaio zubereroaz, aintziña «izter» jendentzat esaten zela erakutsiz.

4.x. Musu

Hitz hau ez da batere ezaguna soilik denean baina bi hitz badira erro hortan eginak:

musurkátü: basurdeak, txerriak lurra musuarekin itzuli.
músu-músu jan: taigabe ta janaria ahotik atera gabe jan

Adierazi berdinxkarekin *müthür* entzuten da.

4.y. Ohol

«Tabla» adierazteko taula diote, «ohol», teiltuak estaltzeko oholxoak dira.

4.z. Txinker

Txiki ez da Zuberoan entzuten, beti «txipi» da baina atz txikienarentzat «txinkerra» diote.

4.&. Ukaldi

Ukaldiarentzat entzutenenik dena «*káska*» da, *kólpe* edo *kólpü* zauritzen duena da, baina ukaldiaren kausa aipatzen denean *khaldü*, *khaldi* hitz elkartuetan agerzen da

bürükháldi, azotekháldi, makhilakháldü
harrikháldü, aixkorakháldü eta holako.

5. ZUBERERAZKO ATZIZKI BAKAN EDO ZAHARKITUAK. DEKLINABIDEETAN

Luzatu gabe hortan, zubereroazko elatiboa *-ti* dela gomutatu behar dugu eta hain zuzen bizkaieraz askotan horrela izanik bazter euskalki horiek darakusgute, forma zaharra ditekela, partitiboarekin ezin nahasia. Adlatiboak ere Zuberoan, bere itxura bitxia dauka *-la*, eta *-lat*, eta orain Santa Grazin bakarrik gorde den, eta joan den mendean Basaburuan arrunt zena adlatiboa artikuluarekin erabil zitekean. *Berterretxen khantorean* (XIX.mendean bilduan) Mari Santz «Mauliala» doa, esan nahi baitu izen berezietan ere «a» tarteka zitekela, baina Baigorriko *Etxauzeko anderearen* kantuan J. Haritschelhar-ek ikertuan, andere «Baiunian hazia» da. Gaur esan dugu Santa Grazin ondo gorde dutela hori

kanporat: kanpoan edonon da
 kanpoalat: gauden lekuaren kanpokaldetik
 etxerat: bakotza bere etxera
 etxeala: ikusten den arrotz etxe batera

Orain Zuberoan beste herrietan entzuten da lehenarentzat *kanpoát*, bigarrenarentzat *kanpulát*, halaber *etxéat/etxílat*.

Euskal idazle zaharretan eta Zuberoatik kanpo sozietatiboa *-ki* da eta enfasiarekin *kíla/kílan*. Hor dirudienez agian, inesiboa gaineratu zaio *ki -ri*; *-kin* emateko

Atzizki batzu

«-to» atzizkia aditzondotan gutxi agertzen da bizkaieratik kanpo baina ez da uste izan behar ez dela nahiz, izen lagun batetan den agertzen zubereroaz: *gaxto*.

«ke» atzizkia, atzizki hau *-ge* edo *-ke* edo *-ga* itxurapean bizkaieraz ezagunago da, baina Zuberoan hitz batetan behintzat *ahalke* «lotsa» hitzean ikusten dugu.

«-illa» txipigarria zubereroaz da gehienik ematen ta lekuizen arruntetan: *lépho* ta *lepháilla*, *hegi* ta *hegílla naba* ta *nabáilla*. *-una* atzizki bitxia da, txipigarria ditekela baina bi kasutan baizik ez da agertzen, neska txikietzaz mintzo: *alabuna*, *neskatxuna*; agian *-ona* da, *gizuna* hitzean bezala *-ñi* txipigarria (ik. tto) atzizki bezala agertzen da kantitatetan inkaüñi (likido apur bat) amiñibat (neurgarri apur bat) aphürñi (apurtxobat) *gero aitonari* esan ditekela *aitañi*, *amonari*, *amañi* eta abar.

-iz: hispaniar atzizkiaren erabilera zubereroaz.

Lekuizenetan *-iz*, *-ize* atzizkia herri izenen artean agertzen da: *Bar-kóize*, *Beroríze*, *Erbíze*, *Ezpéize*, *Oníze* noizpait erromatar ondoko batek etxe bati eman izena *-iz* batekin herrikotua. Aragoian eta Erriberan aurki genetzazke erantzunak Onize ez ote da Fonis, Funis, Funes, Froniz *-en* ahidea, euskarak «f» ari dion aiherrarekin, *Barkoiz*, *Barkóize* (Barcoisbide izenean eta gaskoin zaharreko Barcuix ean arkitzen dena) *Marko* baten etxea izango zen eta m/b aldaketa beste leku batean erakutsiko dugu zubereraren joera dela, erdal maileguetan, hauzo euskalkien alderantziz.

Itxura berdinak ez du esan nahi izen guztiek kondaira ta etorki berdiña daukatela, eta zerrenda hortatik, agian, atera behar genituzke *-itze*, ta *-atze* batzu, esate baterako *Garikóix* ezen Erdi-arian 1377.tik goiti *Garikotxéa*, *Garaikotxéa* agertzen delako. Aldiz Atarratzeko etxeetan XVII-XVIII mendean agertzen den *Enekoiz* (Enecois) etxea argi dago. Etxe berriagoak dira naski *-iz* en orde *-ene* erabiltzen dutenak eta Zuberoako zentsuan bi baizik ez dira agertzen eta Ligiko *Blaskoenéa* XVIII.mendekoa da.

Naski gaur, ez da gehiago *-iz* erabilzen atzizki bezala, baldin instrumentala ez bada hortik ateratzen, baina beste atzizki hil bat ere badago *-oze*, *-oz*, Zuberoan ere aurkitzen dena Akitaniar ta pireneutar eremu zabal batean bezala, grafia zaharrek erakusten digute Barkoxe ezin dela horietan sartu, baina bai *Bildóze* eta *Andóze*, lehena herria dena bigarrena hauzotegia. Andoze horrek hain zuzen *-os* atzizkia delakoari bere aintziñatasuna ematen dio, *Textos arcaicos Vascos* delakoetan K. Mitxelena-k erakutsi baitzuen pireneuko *theonymos* edo jainkoizenen artean *Andos* jainkoa zegoela (ikus ere Nafarroan Andosilla, Andozketa eta abar.); *-oze* dun hitz eta lekuizen gutxi dago toponimia nagusian, Zuberoan.

-ain(anius) eta -ain(gain)

Zuberoako zentsuan argi dago nola okzitanieraz idazten dutenek be-reizten dituzten bi atzizkiak: Goteyn Garynein (*-aniu* dunak) alde batetik eta Berrogain (*-gain* duna) bestetik; gainera Bearnesei Gotey (Goten etxea) ez zaiete arrotz, *Got*, *Gout* gaskoin izena ta Andragoto, nafar akitaniarra baita, german jenderik ekarri gabe, argi direnak; Nafarroan eta Zuberoan berriz Galindo izenak eman dizkigu *Garinoain*, *Garindoain* eta Zuberoan *Garineyn/Garináñe*. Azken bi herri horietan ez da «gain»-ik bi herrixkak ibar baten «zolan» ondoan direlako. Bai, lekuan ibiltzeak ere lagun dezake leku izenaren ulertzen, eta horrek garamatzi beste osagai baten hukitzera, alegia mailegua ala ez lekuaren ixura ala ez, euskalkiak ere bere eragina izan dezakeala lekuizen baten jatorrian eta-ain ekin beharbada hirugarren bat legoke, posesiboa.

Eukenio Arraiza J.ak erakutsi zuen, bere ikerlan batean Nafarroako *-ain* lekuizenek holako gerriko bat egiten zutela Iruñearen inguruan eta Ekialde-Mendebaldetik; hain zuzen ohartu zen, horko euskalkietan *-ain*, *-aren* posesiboa zela eta beste irtenbideak beste argibideak baztertu gabe idatzi, izen haietan asko jende ize gehi *-aren* zirela. Denborarekin eta aurreiritziak baztertuz *-hala* nola Erromatarrek ez dutela eraginik Izan Euskal Herrian *-hiru* soluzio horiei berenak emango dizkiegu, laugarren bat ez bada gaineratzen beste hirurei. Halaxe *Zuriain Zuriaren* bat izan daiteke, Berrogain *Berro + gain* eta *Garindáñe* «*Garindo + aniu*».

Gain-etik jaisi gabe ohar bat egin genezake geroago eztabaidatuko duguna, alegia zubereraz batzutan «gañe» dela berdin lekuizen askotan kontsonante ondoren «e» itsasten da (Atharratze, Uztarrotze, Biarritze) Ekialdeko eta Erdialdeko euskalkietan ohi den baino gehiago. Bokal horren itsastea ba dirudi aspaldikoa dela ezen Landan Erdi-Aroan euskara galdu de lekuan Ibar bati *Ibarri* deritzaio eta Zuberoa auzoan leku izenetan *Ibárre*, *Ibarria* diote *-nahiz* izen arrunta Ibar izanez da «gañe» rekin «ibarre» rekin bezainbeste adibiderik.mendi ospetsuena Zalhagañe (1050m) izanki.

Atx herroarekin gertatu den gisa beharbada Santa Grazin gain-ekin gertatu dena, mendi bat ikusten baitut etxetik Ganagerre izena daukana; badakigu halere «gan»-en beste lekukorik ez dugula aurkitu Zuberoan, orainarte.

LABURPENA

Ikerketa honetan eta hizkuntza zaharraren ezagutzeko nola jende izen leku izen, hitz zaharkitu, erro eta atzizki bazteruez balia ditekien azpimarratu nahi izan dugu eta halaxen erakutsi zuberera aintziña beste euskalkietaz hurbilago zela, euskara batuago zela. Leku izen askoren erran nahia ulertu behar dugunean lapurdiera eta gehiengan bizkaiera erabili behar ditugu; bestalde zerrenda baten bidez ikusten dugu ez dela ia Zuberoan, toponimia nagusian, izenik Araban edota Nafarroan berdina ez dutenik (erkaketa hori gipuzkerari ta bizkaiera osoari ez dugularik hedatu)

RESUMEN

En este artículo intentamos un estudio del suletino antiguo, basado en el análisis de los topónimos y antropónimos, de las raíces y sufijos arcaicos. Así queremos mostrar que el suletino antiguo era más cercano a los demás dialectos, y que el euskera era más unificado en el pasado. Para entender el significado de este vocabulario tuvimos que utilizar el laburdino y sobretodo el vizcaíno el más lejano en el espacio. Una lista de toponimia mayor permite cerciorarse de que casi todos los términos suletinos tienen correspondientes en Alava y Navarra (sin hacer comparaciones con el guipuzcoano o con la totalidad del vizcaíno.)

RESUME

Notre article insiste sur l'exploitation des toponymes, anthroponymes, mots archaïques, racines fossilisées, suffixes et composés résiduels pour la connaissance de la langue ancienne: nous avons démontré ainsi que dans le passé le dialecte souletin était plus proche des autres, et le basque plus unifié. En effet il est souvent nécessaire de faire appel au dialecte labourdinois et surtout au lointain biscayen pour comprendre la signification de ce vocabulaire souletin. D'autre part nous montrons à l'aide d'une liste détaillée qu'en Soule il n'y a pas dans la toponymie majeure de noms qui n'aient pas leur correspondant en Alava ou Navarre (Notre comparaison ne s'étant pas étendue au guipuzcoan ni à la totalité du biscayen.)

SUMMARY

With this article we try to make a study of ancient Souletin, based on the analysis of place-names and antroponyms, their roots and archaic suffixes. We want to show that ancient souletin was closer to the rest of dialects, and that Basque was a more united language in the past. In order to understand this vocabulary we had to use Labourdin and specially Biscayan, the geographically most distant variety. A list of major toponymes shows that most souletin terms have their counterparts in Alava and Navarra (We have not compared the materials with Guipuzcoan or the whole Biscayan).

